

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 222/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko martxoaren 11koa, estatu kideen arteko ondasun-trukeez egiten diren erkidego-estatistikei buruzko 638/2004 (EE) Erregelamendua aldatzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N° 222/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2009, por el que se modifica el Reglamento (CE) n° 638/2004 sobre las estadísticas comunitarias de intercambios de bienes entre Estados miembros» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 87/160 de 31/3/2009)

**222/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2009ko martxoaren 11koa,**

**estatu kideen arteko ondasun-trukeez egiten diren erkidego-estatistikei buruzko 638/2004 (EE)  
Erregelamendua aldatzen duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Trataturia eta, bereziki, haren 285. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [1],

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 638/2004/EE Erregelamendua [2] oinarritzko xedapenak arautzen ditu estatu kideen arteko ondasun-trukeei buruzko erkidego-estatistiketarako.

(2) Batzordeak erkidego-estatistiken esparruan erantzun-karga murrizteaz, sinplifikatzeaz eta lehentasunak ezartzeaz 2006ko azaroaren 14an egindako Komunikazioaren barruan, Intrastat (estatu kideen arteko ondasun-trukeei buruzko erkidego-estatistikak biltzeko sistema) sinplifikazioa egingarria eta komenigarria den arlotzat hartu da.

(3) Berehala egin daiteke ekintza bat estatistika-karga gutxitzeko, Intrastaten bidez jasotako datuen estaldura-indizea murriztuz. Hori lortzeko, atalase-mailak igo daitezke, hortik behera Intrastati informazioa ematera behartuta ez egoteko, horrela alde gehiago geldituko direlako muga horren azpitik. Horrenbestez, agintari nazionalen estimazioetan oinarritutako estatistiken zatia handiagoa izango da.

(4) Epe luzeko eraginkortasunari dagokionez, kontuan hartu behar dira beste neurri batzuk estatistika-kargak gutxitzen jarraitzeko; aldi berean, indarreko adierazle eta arauetara egokitzen diren estatistikak mantendu egiten dira. Neurri horien artean, besteak beste, hauek egon litezke: geroago jaitea bidali eta hartutako estatistika guztien derrigorrezko gutxieneko estaldura-indizeak eta, etorkizunean, fluxu-sistema bakarra ezartzeko aukera. Horretarako, Batzordeak ikertzen jarraitu behar du zer-nolako balioa, bideragarritasuna eta eragina duten neurri horiek kalitatean.

(5) Estatu kideek trukeei buruzko urteko datu bateratuak eman beharko lizkiokete Batzordeari (Eurostat), enpresen ezaugarrien arabera banatuta. Horren ondorioz, erabiltzaileek estatistika-informazio gehiago izango lukete gai ekonomiko adierazgarriei buruz, eta azterketa-mota berri bat egin ahal izango litzateke (adibidez, nola diharduten Europako enpresek globalizazioaren barruan), horrek enpresen informazioan estatistika-baldintza gehiago ezartzea ekarri gabe. Enpresen estatistiken eta trukeen estatistiken arteko lotura egitean, konbinatu egin behar dira, alde batetik, Erkidegoaren barruko eragileen erregistroaren informazioa eta, bestetik, 177/2008/EE Erregelamendua eskatutako informazioa; erregelamendu hori Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena da, 2008ko otsailaren 20koa, estatistika-helburuekin erabilitako enpresa-erregistroetarako esparru komuna arautzen duena.

(6) Trukeen estalduraren minimoaren jaitsiera egikaritzeko eskumenak Batzordeari esleitu beharko litzaizkioke. Egikaritze-eskumen horiek beharrezko malgutasuna eman behar dute etorkizunean atalaseen ebaluazio erregularrean eta agintari nazionalakiko lankidetzan estuan oinarrituta egin daitezkeen aldaketetarako, oreka ezin hobea lortzeko estatistika-kargaren eta datuen zehaztasunaren artean.

(7) Trukeen estalduraren minimoa gutxitzean, beharrezkoa da neurriak hartzea datuen bilketa hain osoa ez izatea konpentsatzeko, eta, beraz, kalitatean izango duen eragin kaltegarriari aurre egiteko, batez ere datuen zehaztasunari dagokionez. Eskumenak eman behar zaizkio Batzordeari, estatu kideetako kalitate-kontrolak indartzeko eta, bereziki, Intrastaten bidez jasotako erkidego-estatistiketarako irizpideak zehazteko.

(8) 638/2004/EE Erregelamendua xedatzen du Kontseiluak 1999ko ekainaren 28an onetsitako 1999/468/EE Erabakiaren arabera hartu behar direla neurri jakin batzuk; erabaki horretan Batzordeari esleitutako egikaritze-eskumenak erabiltzeko prozedurak adierazten dira [4].

(9) 1999/468/EE Erabakia Kontseiluaren 2006/512/EE Erabakiak [5] aldatu zuen, azken horrek kontrolatzen arautze-prozedura ezarri baitzuen Trataturia 251. artikuluan araututako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuen aldaketarako neurri orokorrak hartzeko, are elementu horietako batzuk kenduta ere, edo egintza funtsezkoak ez diren elementu berriei osatuta.

(10) Trataturia 251. artikuluan araututako prozeduraren arabera onartu eta indarrean dauden egintzei kontrolatzen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiaren egintza Adierazpenaren arabera [6], egintzok prozedura aplikagarriei jarraituz onartu behar dira.

(11) Komeni da Batzordeari eskumenak ematea honako hauek egin ditzan: ondasun edo mugimendu jakinei aplikatu dakizkiekeen bestelako edo berariazko arauak onartzea; erreferentzia-aldia egokitzea, betebeharrakiko lotura kontuan hartzeko, balio erantsiaren gaineko zergari eta aduana-zergari dagokienez; agintari nazionalak jaso behar duten informazioa biltzeko moduak erabakitzea (bereziki, erabili behar diren kodeak); Intrastaten gutxieneko estaldura garapen tekniko eta ekonomikora egokitzea; estatu kideek bete beharreko baldintzak adieraztea, munta txikiko banako transakzioei buruz eman beharreko informazioa sinplifikatzea izan dezaten; transmititu behar diren datu agregatuak eta estimazioen emaitzek bete behar dituzten irizpideak zehaztea; 177/2008/EE Erregelamenduaren arabera erregistratutako enpresen ezaugarriei buruzko datuak eta salgaien bidalketa eta helduerei buruzko estatistikak erlazionatuz estatistikak biltzeko aplikatu beharreko xedapenak onartzea; eta datuen kalitatea bermatzeko beharrezko beste edozein neurri hartzea. Neurri horiek orokorrak eta 638/2004/EE Erregelamenduan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatuz), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(12) Beraz, bidezkoa da 638/2004/EE Erregelamendua aldatzea.

ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

### *1. artikulua*

Aldaketa hauek izan ditu 638/2004/EE Erregelamenduak:

1) 3. artikuluan, 4. paragrafoa aldatu eta honela utzi da:

“4. Salgai edo mugimendu partikularren kasuan, arau desberdinak edo espezifikoak aplikatu daitezke, eta horiek Batzordeak onartuko ditu. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko eta are erregelamendua bera osatzeko ere diren neurri hauek 14. artikuluko 3. paragrafoan jasotako arautze-prozedura kontrolatuaren arabera hartuko dira.”.

2) 6. artikuluan, 2. paragrafoa aldatu eta honela utzi da:

“2. Batzordeak erreferentzia-aldia egokitu ahal izango du balio erantsiaren gaineko zergaren eta aduana-zergaren esparruko betebeharrakiko lotura kontuan hartzeko. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko eta are erregelamendua bera osatzeko ere diren neurri hauek 14. artikuluko 3. paragrafoan jasotako arautze-prozedura kontrolatuaren arabera hartuko dira.”

3) 7. artikuluan, 1. paragrafoa aldatu eta honela utzi da:

“1. Honako hauen ardura izango da informazioa Intrastat sistemara helaraztea:

a) subjektu pasiboa, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari buruzko 2006ko azaroaren 28ko Kontseiluaren 2006/112/EE zuzentarauko III. tituluaren arabera [\*], bidalketa egin den estatu kidean, eta honako hauek egin dituen:

i) salgaiak bidaltzeko kontratua formalizatu du, garraio-kontratuak salbuetsita, edo, bestela,

ii) salgaiak bidali edo bidalarazi ditu, edo, bestela,

iii) bidalketaren xede diren salgaiak dauzka,

edo haren ordezkari fiskala, 2006/112/EE zuzentarauko 204. artikuluan aipatua, eta

b) subjektu pasiboa, 2006/112/EE zuzentarauko III. tituluaren arabera, salgaiak heltzen diren estatu kidean, eta hauek egin ditu:

i) salgaiak entregatzea ekarri duen kontratua formalizatu du, garraio-kontratuak salbuetsita, edo, bestela,

ii) salgaiak entregatu edo entregarazi ditu, edo, bestela,

iii) entregaren xede diren salgaiak dauzka,

edo haren ordezkari fiskala, 2006/112/EE zuzentarauko 204. artikuluan aipatua.

4) 8. artikuluko 2. paragrafoan, honako testu hau jarri da a) idatz-zatiaren ordeez:

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

“a) gutxienez hilean behin, aipatu epean salgaiak beste estatu kide batzuetara bidali edo beste estatu kide batzuetatik datozen salgaiak erosi dituztela esan duten subjektu pasiboen zerrendak. Zerrenda horietan subjektu pasibo bakoitzak zerga-helburuekin deklaraturako salgaien guztizko balioa agertuko da;”.

5) 9. artikuluan, 1. paragrafoa honela aldatu da:

a) lehenengo lerrokan, a) idatz-zatiaren ordez, testu hau jarriko da:

"a) 2006/112/EE Zuzentarauaren 214. artikulua araututakoaren arabera informazioa emateko ardura duen pertsonaren identifikazio-zenbaki indibiduala;"

a) bigarren paragrafoaren ordez, ondoko testu hau jarriko da:

"Eranskinean ematen dira e) eta h) idatz-zatiek adierazitako estatistika-datuaren definizioak. Behar izanez gero, informazio hori jasotzeko erabakiak zehaztuko ditu Batzordeak; bereziki, erabili beharko diren kodeak. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 14. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira."

6) Honela aldatuko da 10. artikulua:

a) 3. paragrafoaren ordez, honako testu hau jarriko da:

"3. Intrastat sistemari informazioa emateko obligazioa salbuetsiko duen atalase-maila finkatzean, bermatu egin behar da espedizio guztien %97ren balioa estaliko dela eta dagokion estatu kidera iristen diren subjektu pasibo guztien etorreraren %95eko balioa gutxienez estaltzen dela.

Teknikak eta ekonomiak izandako garapenera egokituko ditu Batzordeak indize horiek, baldin eta posible bada horiek murriztea eta, aldi berean, indarreko adierazle eta kalitate arauak egokitzen zaizkien estatistikei eutsita. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 14. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira;"

b) laugarren paragrafoan, bigarren lerrokan ordez, testu hau jarriko da:

"Atalase-maila horien balioa nola erabakiko diren zehaztuko du Batzordeak. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 14. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira;"

c) 5. paragrafoaren ordez testu hau jarriko da:

"5. Egoera jakin batzuetan, kalitate-eskakizunei erreparatuta, estatu kideek aukera izango dute munta txikiko transakzio indibidualen buruzko informazioa sinplifikatzeko. Batzordeak zehaztu behar du zer egoera izango diren horiek. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 14. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira."

7) 11. artikuluan ordez honako testu hau jarriko da:

*"11. artikulua*

### **Estatistiken izaera konfidentziala**

Informazioa eman duten aldeek hala eskatzen badute soilik, estatu-tako agintari nazionalak erabaki dezakete alde horiek identifikatzeko aukera ematen duten estatistika-emaitzak zabaldu egin behar diren edo moduren batera aldatu, haien hedapenak estatistiken izaera konfidentziala kaltetu ez dezaten."

8) Honela aldatuko da 12. artikulua:

a) 1. paragrafoa a) idatz-zatiaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

"a) Egutegiko 40 egun erreferentziako hila amaitzen den egunetik aurrera kontatuta, Batzordeak zehaztuko dituen emaitza bateratuen kasuan. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 14. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira;"

b) esaldi hauek gehitzen zaizkio 2. paragrafoari:

"Batzordeak zehaztutako irizpideak adierazitako moduan emango dira zenbatespenen emaitzak. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 14. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira;"

c) honako paragrafoa gehitu da:

"4. Estatu kideek Batzordeari (Eurostat) igorriko dizkiote urteko merkataritza-estatistikak, enpresen ezaugarrien arabera banakatuta, enpresen jarduera ekonomikoari erreparatuta, eta Europako Erkidegoetan jarduera ekonomikoak izendatzeko erabiltzen diren bi digitudun sekzio edo mailen arabera adierazita (NACE). Hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1893/2006/EE Erregelamenduak [\*\*] arautzen duena betez adieraziko da, eta tamaina enplegatuen kopuruaren arabera neurtuko da.

Estatistika horiek biltzerakoan, elkarrekin lotuko dira, batetik, helburu estatistikoekin erabilitako enpresen erregistroentzat esparru erkide bat ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko otsailaren 20ko 177/2008/EE Erregelamenduak arautzen duen moduan erregistratutako enpresen ezaugarriak [\*\*\*], eta, bestetik, Erregelamendu honetako 3. artikuluan adierazitako estatistikak.

Estatistika horiek biltzeko jarduerari aplikatuko zaizkion xedapenak zehaztuko ditu Batzordeak. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 14. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

9) Honako testu hau jarriko da 13. artikuluen ordezt:

*"13. artikulua*

#### **Kalitatea**

1. Erregelamendu honek egiten duen araupenaren barnean, kalitate-irizpide hauek aplikatuko zaizkie igorri beharreko estatistikei:

a) "egokitasuna": irizpide honek neurtzen du zer-nolako erantzuna ematen dieten estatistikek haien erabiltzaileek gaur egun dituzten eta gerora izan ditzaketen beharriaz;

b) "zehaztasuna": bat etortzea zenbatespenak eta balio ezezagunen egiazko zenbatekoak;

c) "gaurkototasuna": zer epe igarotzen den azaldutako egitate edo gertakaria gertatu den unetik hari buruzko informazioa erabilgarri jartzen den arte;

d) "puntueltasuna": zer denbora igarotzen den datuak argitaratzen diren egunaren eta helburuko egunaren (datuak aurkeztu behar ziren egunaren) artean;

e) "eskuragarritasuna" eta "argitasuna": irizpide honek adierazten du erabiltzaileek zer baldintza eta modalitatean eskuratu, erabili eta interpretatu ditzaketen datuak;

f) "konparagarritasuna": irizpide honek neurtzen du zer-nolako eragina duten geografia-eremu eta sektore anitzetan eta denboran zehar aplikatzen diren estatistika-konzeptuen artean dauden diferentziak;

g) "koherentzia": irizpide honek neurtzen du zer-nolako egokitasuna duten datuak fidagarritasunez konbinatzeko modu anitzetan eta erabilera ugarrantiarako.

2. Emandako estatistiken kalitateari buruzko txosten bat igorriko diote estatu kideek Batzordeari (Eurostat).

3. Erregelamendu honek araututako estatistikentzat artikuluko 1. paragrafoak adierazten dituen kalitate-irizpideen aplikazioa azalduko duten kalitate-txostenen modalitateak eta haien egitura, 14. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako arautze-prozedurari jarraituz ezarriko dira.

Eman zaizkion estatistiken kalitatea baloratuko du Batzordeak (Eurostat).

4. Batzordeak zehaztuko du zer neurri bete behar diren emandako estatistiken kalitatea bermatzeko, kalitate-irizpideei jarraituz. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (osatu ere egin dezakete) 14. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira."

10) 14. artikuluan, honako testu hau jarriko da, 3. paragrafoaren ordezt:

"3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira; betiere, 8. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta."

11) Eranskinean, 3. paragrafoa a) idatz-zatiaren lekuan, honako testu hau jarriko da:

"a) zerga-oinarriak eragin fiskaletarako osatzen zuen balioak, 2006/112/EE zuzentarauak araututakoari jarraituz;"

# *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## *2. artikulua*

*Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeii egunera jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu ahal izango da.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak dira eta estatu kide guztietan zuzenean ezartzekoak. Estrasburgon emana, 2009ko martxoaren 11n.

*Europako Parlamentuaren izenean*

*Presidentea*

H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean*

*Presidentea*

A. VONDRA

[1] Europako Parlamentuak 2008ko urriaren 21ean emandako irizpena (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2009ko otsailaren 19an emandako Erabakia.

[2] L 102 EO, 2004/04/07koa, 1. or.

[3] L 61 EO, 2008/03/05koa, 6. or.

[4] L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or.

[5] L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.

[6] C 255 EO, 2006/10/21koa, 1. or.

[\*] L 347 EO, 2006/12/11koa, 1.or.

[\*\*] L 393 EO, 2006/12/30, 1. or.

[\*\*\*] L 61 EO, 2008/03/05, 6. or.